

# Sufritzea dagokigu, baina, itxaropenari eusteko gauza ote gara?

10. saioa

Guztiok, lehenago ala beranduago, aurre egin behar izaten diogu sufrimenduari. Esperientzia horrek itxaropena galtzera eraman gaitzake eta batia gure fede esperientzia zalantzan jartzera ere: berretsi ote gaitzake gure bizitzan eta munduan hedatuta dagoen bidegabeko hainbeste sufrimendu izanagatik ere maite gaituen Jainko Aitaren existentzian? Saio honetan horren inguruan jardungo dugu.

## SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Sufrimenduaren esperientziak zentzuari buruzko galderak eragiten dizkigula antzeman
- Jesusen itxaropen-proposamena ezagutu
- Bizitzako egoera eta baldintza guztietan lagun egiten digun Jainko Aitarengan konfiantza jarri
- Seme-alabekin gaitz eta sufrimenduaren esperientziaren inguruan jarduteko eren inguruan hausnartu eta itxaropenean hezi

Haurrak:

- Tristetu egiten nauten, sufriarazten didaten gauza eta egoerak adierazi
- Jainkoa beti, eta batez ere gaizki gaudenean, ondoan dugula antzeman
- Aita ona izanik, Jainkoak den-denok maite gaituela aitortu

## GARAPENA

Aurkezpena. Denok gaudela, bost minutu hartuko ditugu gaur bilerara nor etorri den eta nola etorri garen ikusteko. Ondoren, helduak eta haurrak banatu egingo gara.

**Helduak:**

Hasteko, gaiaren inguruan solasean jardungo dugu. Elkarrizketa suspertzeko, oinazez jantzitako hainbat egoeraren (gerra, gosea, langabezia, hondamendi naturala, gaixotasuna, heriotza, indarkeria, tristura,...) argazkiak ipiniko ditugu mahai gainean (edo lokalean). Taldekideei denbora emango diegu, argazkiak ikus ditzaten (argazkien montajea

proiektatuz ere egin daiteke). Ondoren, elkarrizketari ekingo diogu ondorengo galderekin edo antzekoekin<sup>1</sup>:

- Zein sentimendu eragin dizute irudiok?
- Zer datorkigu burura “gaitzaz eta sufrimenduaz” ari garenean?
- Zein jarrera dut gaitz eta sufrimenduaren aurrean? Bizi izan dudan sufrimenduzko gertaera zehatz bat eta horren aurrean izan dudan jarrera kontatu
- Gaitz eta sufrimenduaren aurrean, zein galdera sortzen zaitu? Nor edo zer egiten dut erantzule?
- Askorentzat, gaitzak Jainkoa zalantzan jartzen du. Pentsatu al duzu noizbait nola egin bateragarri Jainkoa eta gaitza? Jainkoak gaitza nahi edo baimentzen du? Sinetsi dezakegu seme eta alaben gaitza nahi duen Jainko Ama-Aitarengan?

Jarraitzeko eta azken kontu honetan sakontzeko, “*Gaitza eta Jainkoaren esku hartzea*” agiria irakurriko dugu. Bertan ikusi dugunak zer esaten digun adieraziko dugu. Ondorengo galderak lagungarri izan daitezke:

- Zer sentiarazten eta pentsarazten digu Jainko/Jesusi eta sufrimenduari buruz irakurri dugunak?
- Zailtasunetan, gaixoardietan, heriotzan... aurkitzen dugu itxaropenerako, bizitzari zentzua emateko arrazoirik?
- Guzti honek nola interpelatzen gaitu ama eta aita bezala eta gure seme-alaben heziketan transmititu nahi dizkiegun aukeretan?

## Haurrak:

Tristura eragiten dieten egoerak, gaizki dauden uneak, beraiek edo familiak triste sentitu diren uneak... gogora ditzatela eskatuko diegu hurrei. Eragileak elkarrizketa suspertuko du, haurrek beraien bizipen eta sentimenduak adieraz ditzaten.

Ondoren, eskulana egiteko esango diegu. Beraien oinatzak marraztuko dituzte. Horretarako, zapatilak kartulinaren gainean jarri eta silueta marraztuko dute, ondoren mozteko. Haur bakoitzak oinatz bat baino gehiago marraztuko du. Oinatz horietan, kezka, tristura, gaizki pasatzea... dakarkien gauza edo egoerak idatzi edo marraztuko dituzte.

Ondoren eragileak “Oinatzak harean” otoitza irakurriko die (hizkuntza hurrei egokituz). Horrelako egoeretan Jainkoa beti dugula ondoan, zaindu, lagundu eta maitatu egiten gaituela azalduko die.

Oinatzak azken otoitzera eramango dituzte eta erdian jarri.

<sup>1</sup> Elkarrizketa motibatuzko eta suspertzeko, eragileak aurretik irakurri eta landu behar du “*Gaitza*” agiria. Saiorako materialen sailean aurki daiteke.

### **Azken unea, denok batera:**

Talde handian bildurik, otoitz eginez emango diogu amaiera saioari. Hasteko, hurrek oinatzak ipiniko dituzte lurrean, gurasoei zer idatzi duten eta zer esan nahi duen azalduz.

Ondoren, 'Brotos de Olivo' taldearen abestia entzungo dugu: "*En mi debilidad me haces fuerte*" (<https://www.youtube.com/watch?v=z1z5hHLoPzY> )

Eta amaitzeko, "Oinatzak harean" otoitza esango dugu ozen.